

Reckless. Harrizko haragia



Reckless. Harrizko haragia

Jatorrizko izenburua: *Reckless*

Egilea: Cornelia Funke

Itzultzailea: Aiora Jaka

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Elkar

MIKEL GARMENDIA

Fantasiatzko gazte literatura izenda dezakegun eremu zabalean kokatuko dugu, lehenengo eta behin, Cornelia Funke idazle arrakastatsuen azkeneko eleberria –oraingoz azkeneko, antza denez trilogia berri baten lehen alea omen baita hau–. Honen aurretik, beste hainbat lanen artean, *Tintazko mundua* trilogia idatzi zuen –horietako bat euskarara ekarria dugu: *Tinta-bihotz*– eta haren arrakasta ikusirik, espero izatekoa da hasi berri duen trilogia honekin ere gauza bertsua gertatzea.

RECKLESS. Harrizko haragia eleberriak Jacob eta Will Reckless anaien abenturak kontatzen dizkigu eta Grimm anaien ipuin fantastikoak ditu inspirazio-iturri. Jacob mutikoak mundu magiko bat aurkitzen du, bere aitaren bulegoko ispiluaren atzean. Handik urte batzuetara, akats larri bat egingo du, atzetik segika joango baitzaio Will anaia gaztea ispiluaren bestaldeko mundura, ipuin beldurgarriak benetako bihurtzen direnora eta, hala, sorgin baten madarikazioaren eraginez Willi harrizkoa bilakatzen hasiko zaio larruazala. Eta horixe izango da, aitaren desagerpen misteriotsua argitzen saiatzearekin batera, Jakobek egitekoa: Will anaia harrapatuta daukan madarikazioa etetea. Saiatze horretan egundoko abenturak, borrokak, ezusteak biziko ditu Jakobek azeri-larruz jantzitako neska, Axeri izenekoa, beti ondoan izango duelarik, itzal baten pare, hari laguntzeko gertu. Oso pertsonaia interesgarria eta bikain karakterizatua bera. Fantasiaren munduan mugituko gara, hiperbolezkiko egoeratan, baina era berean aurkituko ditugu errealitatearekiko konexioak, hala nola etsi gabe saiatzeak dakartzan ondorioak edo, are argigarriagoak gerta daitezkeen honelako esaldiak: “Beren burua bertan islatuta ikusten ez dutenei soilik irekitzen zaie ispilua”.

Eleberria, esan dugunez, abenturaz eta ekintzaz josia da eta, suma litekeenez, irakurketa arin eta bizia eragiten digu, Aiora Jaka itzultzailearen trebeziari esker euskara txukun eta atseginean egin dezakeguna.